

JOKALARI BETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA

(2021eko abenduaren 26tik 31ra, Iruñean)

Iruñeko Nuevo Casino Principal elkartearen lokalean jokatu zen. 60 minutuko partidak izan ziren, gehi 30 segundo jokaldiko. 5 txandako sistema suitzarra erabili zen.

Jokalari Beteranoen Nafarroako Xake Txapelketa (50-65 urteen arteko tartea)

AZKENEKO SAILKAPENA

- 1) Joseba Otano Villanueva (1.643) – 4'5 puntu.**
- 2) Mariano De Pablos Fernandez (1.898) – 3'5 puntu.**
- 3) Juan Sanciñena Arpide (1.669) – 3 puntu.**
- 4) Javier Aldea Subiran (1.131) – 3 puntu.
- 5) Pedro Nieto Gomez (1.322) – 3 puntu.
- 6) Adolfo Ruiz Anton (1.554) – 3 puntu.
- 7) Juan Andres Cerro Larraza (1.638) – 2'5 puntu.
- 8) Miguel Adrian Abad (1.328) – 2'5 puntu.
- 9) Javier Ballaz Etxegoien – 2 puntu.
- 10) Jose Maria Diez Simon – 1'5 puntu.
- 11) Diego Lopez Morata (1.214) – Puntu bat.
- 12) Miguel Argaya Urdaniz (1.930) – 0'5 puntu.

JOSEBA OTANOK USTEKABEA EMAN ZUEN

Miguel Argaya Urdaniz zen faborito nagusia, baina, lan arazoak tarteko, Txapelketa utzi zuen partida bat bera ere jokatu gabe.

Hori hala izanik, Mariano De Pablos lekukoa hartzeko prest zegoen. Juan Sanciñena eta Joseba Otano ere faboritoen taldean agertzen ziren baina koxka bat beherago.

Juan Sanciñena Arpide zen aurreko txapelduna, Nafarroako Banakako Txapelketaren baitan lortutako tituluari esker.

Joseba Otano ustekabean nagusitu zen. Diego Lopez Morata gainditu zuen lehenengo txandan. Bigarrenean Juan Sanciñenarekin ozta-ozta berdindu zuen. Jose Maria Diez Simoni irabazi zion hirugarren txandan. Laugarren partida erabakigarria izan zen, Mariano De Pablos garaitu zuelako. Azkeneko txandan Javier Aldeari nagusitu zitzaion, titulurako borrokan. Juan Sanciñenak ere aukera zuen, aldeko emaitzak izanez gero. Ez zen hori gertatu eta, gainera, galdu zuen Mariano De

Pablosen aurka. Horrela, bigarren postua bereganatu zuen De Pablosek eta Sancifiena 3. tokian geratu zen. 20'20 puntuz igo egin zen eloko zerrendan.

Mariano De Pablosek lehenengo txandan berdindu zuen Miguel Adrian Abaden aurka. Laugarrenean joan zitzaion trofea, liderraren auka galduta. Gehiago espero zen berarengandik, baina behintzat bigarren postua eskuratu zuen azkeneko partidari Juan Sancifiena gaindituta. Azken honentzat izan zen hirugarren postua.

Javier Aldea Subiranek laugarren postuan amaitu zuen. Postu ona, hamargarren zerrendaburua zelako.

Joseba Otanok 60 urte ditu eta Federazioak antolatutako txapelketetan bigarren titulua du hau, Udaberri Txapelketa 2016an irabazi baitzuen. Arrano Elkartearen jokatu du.

Jokalari Superbeteranoen Nafarroako Xake Txapelketa (65 urtetik gorakoak)

AZKENEKO SAILKAPENA

- 1) **Rafael Ruiz Escobar (1.643) – 4'5 puntu.**
- 2) **Pedro Viñal Gutierrez (1.925) – 4 puntu.**
- 3) **Jesus Martinez Zazo (1.655) – 3'5 puntu.**
- 4) Santiago Alfonso Abrego (1.737) – 3 puntu.
- 5) Jesus Maria Gonzalez Pabollet (1.827) – 2'5 puntu.
- 6) Diego Moral Barragan (1.568) – 2'5 puntu.
- 7) Miguel Donazar Garayoa (1.651) – 2 puntu.
- 8) Fernando Hernandez Zorzano (1.406) – 2 puntu.
- 9) Carlos Alberto Echarte Gomez (1.035) – 2 puntu.
- 10) Senorina Alcantara Ugarte – 1'5 puntu.
- 11) Julio Vilches De Frutos – Puntu bat.
- 12) Felipe Martin Marin (1.433) – 0 puntu.

RUIZ ESCOBAR ETA PEDRO VIÑALEN ARTEKO ENEGARREN LEHIA, LEHENENGOAREN ALDE

Berriz ere Rafael Ruiz Escobar eta Pedro Viñal Gutierrezen arteko lehia bizi izan genuen, dagoeneko oso klasikoa bihurtuta. Saltsa gehiago jartzeko polemika faltarik ez zen izan. Burlatuko Mikel Deunakoa da lehenengoa eta Oberenakoa bigarrena.

Txapelketak beste izen ospetsu batzuk izan zituen: Jesus Maria Gonzalez Pabollet, Santiago Alfonso Abrego eta Jesus Martinez Zazo. Baita ospe txikiagoko Miguel Donazar Garayoa eta Diego Moral Barragan ere. Felipe Martin Marin ahaztu gabe, azken titulua lortu zuena. Hala ere, honek txapelketa utzi zuen lehenengo txanda jokatu eta gero, pandemiarengatik kezkatuta. Azpimarratzekoa da Senorina Alcantara Ugarteren parte hartzea. Beteranoen Txapelketan lehenengo aldiz emakume bat. 10. sailkatuta ere emakume superbeterano txapelduna bihurtu zen Mikel Gureako emakumea. Dena den, aurrekari garrantzitsua jarri zuen.

Lehenengo bi txandetan faborito nagusiek ez zuten hutsik egin. Rafael Ruiz Escobarrek Diego Moral eta Santiago Alfonso Abrego garaitu zituen. Pedro Viñalek Felipe Martinekin eta Jesus Martinez Zazorekin beste hainbeste egin zuen.

Hirugarren txandan aurrez aurre izan ziren eta emaitza berdinketa izan zen.

Laugarren txandan Rafael Ruiz Escobarrek abantaila hartu zuen, Miguel Donazar gaindituta. Pedro Viñalek berdinketa besterik ez zuen eskuratu Jesus Maria Gonzalez Pabolleten aurka.

Bosgarren txandan, Diego Moral, Jesus Martinez Zazo eta Jesus Maria Gonzalez Pabollet ziren hautagaiak podiuma osatzeko. Gonzalez Pabolletek, gainera, matematikoki txapelketa irabazteko aukera zuen, baina aldeko emaitzen konbinazio batekin.

Pedro Viñalek lortu zuen Diego Morali irabaztea. Jesus Martinez Zazok Miguel Donazar gainditu zuen. Eta zer gertatu zen Rafael Ruiz Escobar – Jesus Maria Gonzalez Pabollet neurketa ezin klasikoagoan? Ba, ez zela jokatu. Antza denez, Pabollet gaixorik jarri zen eta hala jakinarazi zion antolakuntzari. Horrek eman zion hirugarren postua Jesus Martinez Zazori baina txapeldun izateko azken aukera kendu zion Pedro Viñali. Gertatutakoak hainbat interpretazio izan zituen, baina egia dena da goiz-goizean Gonzalez Pabolletek jakinarazi zuela sendagilearengana joana zela. Gainontzekoak espekulazioak dira.

JOKALARI BETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETAREN HURBILEKO HISTORIA

2003-04ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2004-05eko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2005-06ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2006-07ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2007-08ko denboraldian: **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, garaile.

2008-09ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2009-10eko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2010-11ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2011-12ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2012-13ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2013-14ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2014-15eko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile; **Rafael Ruiz Escobar**, superbeterano garaile.

2015-16ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile; **Alfonso Cemborain Oricain**, bigarren; **Miguel Angel Hernandez Barricarte**, hirugarren; **Rafael Ruiz Escobar**, superbeterano garaile; **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, bigarren superbeterano; **Santiago Alfonso Abrego**, hirugarren superbeterano.

2016-17ko denboraldian: **Jesus Martinez Zazo**, garaile; **Jesus Urbiola Martinez**, bigarren; **Alfonso Cemborain Oricain**, hirugarren; **Pedro Viñal Gutierrez**, superbeterano garaile; **Rafael Ruiz Escobar**, bigarren superbeterano; **Santiago Alfonso Abrego**, hirugarren superbeterano.

2017-18ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, txapelketako garailea; **Miguel Angel Hernandez Barricarte**, beteranoetan garaile; **Cesareo Arrese-Igor Sanchez**, beteranoetan bigarren; **Joseba Otano Villanueva**, beteranoetan hirugarren; **Pedro Viñal Gutierrez**, superbeterano garaile; **Rafael Ruiz Escobar**, bigarren superbeterano; **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, hirugarren superbeterano.

2018-19ko denboraldian, beteranoetan (50-65 urteen artean): **Alfonso Cemborain Oricain**, garaile; **Joseba Otano Villanueva**, bigarren; **Adolfo Ruiz Anton**, hirugarren.

2018-19ko denboraldian, superbeteranoetan (65 urtez gorakoak): **Rafael Ruiz Escobar**, garaile; **Pedro Viñal Gutierrez**, bigarren; **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, hirugarren.

2020-21eko denboraldian, beteranoetan (50-65 urteen artean): **Juan Sanciñena Arpide**, garaile; **Jose Javier Perez Remondegui**, bigarren; **Joseba Otano Villanueva**, hirugarren.

2020-21eko denboraldian, superbeteranoetan (65 urtez gorakoak): **Felipe Martin Marin**, garaile; **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, bigarren.

2021-22ko denboraldian, beteranoetan (50-65 urteen artean): **Joseba Otano Villanueva**, garaile; **Mariano De Pablos Fernandez**, bigarren; **Juan Sanciñena Arpide**, hirugarren.

2021-22ko denboraldian, superbeteranoetan (65 urtez gorakoak): **Rafael Ruiz Escobar**, garaile; **Pedro Viñalo Gutierrez**, bigarren; **Jesus Martinez Zazo**, hirugarren.

PALMARESA, 2003-04ko DENBORALDITIK, BETERANOETAN

- 1) **Rafael Ruiz Escobar – 7 titulu.**
- 2) **Pedro Viñal Gutierrez – 5 titulu.**
- 3) **Alfonso Cemborain Oricain – Titulu bat.**
- 4) **Jesus Maria Gonzalez Pabollet – Titulu bat.**
- 5) **Miguel Angel Hernandez Barricarte – Titulu bat.**
- 6) **Jesus Martinez Zazo – Titulu bat.**
- 7) **Joseba Otano Villanueva – Titulu bat.**
- 8) **Juan Sanciñena Arpide – Titulu bat.**

PALMARESA, SUPERBETERANOETAN

- 1) **Rafael Ruiz Escobar – 4 titulu.**

- 2) Pedro Viñal Gutierrez – 2 titulu.
- 3) Felipe Martin Marin – Titulu bat.

2021-12-31.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.